# 1. KONTABILITATEAREN OINARRIAK

## 2. GAIA: Barne-kontabilitatea. Sarrera

* 1. Barne kontabilitatearen bilakaera historian: Adituen ustez, 1929 ko. gain-behera handian hasten da Barne kontabilitatea egun ezagutzen dugun moduan garatzen.
Merkatu amerikarrean enpresa baldintza batzuen eraginez piztu egiten da Barne kontabilitatea:
  * Industriaren hazkuntza.
  * Konpetentziaren hazkuntza
  * Enpresen konpetentzien hazkuntza
  * Enpresen fusioen hazkuntza

60. hamarkadan hasten da Barne kontabilitatea, kanpo kontabilitatetik bereizten.

* 2. kontzeptuen bilakaera: Kanpo kontabilitateari, kontabilitate finantzarioa deritzo eta hirugarrenekin harremanak jaso nahi izan ditu; hornitzaile, hartzekodun, bezero, sindikatu... Barne kontabilitatea bestalde, enpresa barruan gertatzen denaz arduratuko da. Frantzian ustiakuntzaren kontabilidate analitikoa deitu ohi zaio, baina egun izen zabalduena Gestio kontabilitatea da, ingelesetik eratorria: "Management Accounting"
* 3. Definizioa: kontabilitate honen helburua erakunde baten jardueran sortutako aberastasuna indikatu neurtu eta baloratzea da ustiakuntzaren emaitzak ezartzeko haien jestioa antolatu eta kontrolatzeko eta zuzendaritzak hartu behar dituen erabakiei begira beharrezko informazioa hornitzea.

* 4. kanpo eta barne kontabilitatearen arteko aldeak

| KONT. ANALITIKOA (kanpo) | KONT. FINANTZARIOA (Barne) |
| --- | --- |
| 1- Ez da derrigorrekoa. Borondatez eman ditzake. Dokumentu malguak. | 1- Derrigorrezkoa da. Urteko kontuak ere derrigorrez. |
| 2- Ekitaldiaren iraupena: HIL 1, | 2- Ekitaldiaren iraupena: URTE 1, 12/31 edo 6/31 |
| 3- Etorkizunari begiratu | 3- Iraganari begiratzen dio |
| 4- Emaitzak: Ustiapeneko emaitzak | 4- Emaitzak: Ustiapeneko emaitza, (+, -) zure aktibitatearekin zerikusia (+, -) Finantzarioa, (+, -) Ez ohizko emaitza. Etxe bat erosten... |
| 5- Datuak, Informazioa: enpresa barruan geratuko da | 5- Informazioa: kanpora aterako da. |

* 5. Bi kontabilitateen arteko lotura: Bi lotura sistema daude:
1- Monismoa eta 2. Dualismoa.

1. Monismoa: ~~Sistema~~ Bakarra da egunkaria eta kontu-plana bi kontabilitateetan, beraz nahastorik daude bi kontabilitateak.

Arazoak: Lan erritmoa desberdina, aurreikuspenak desberdinak dira denbora tarteak desberdinak direlako, kontzeptu heteregenoak nahastu egiten dira: BK, kostuetaz hitz egin, KK gastuetaz.
Beraz esan daiteke ez dela gomendagarria sistema hau.

2. Dualismoa: Bi sistema desberdin erabiliko dira

## 6. Kontabilitate Analitikoaren emaitza eta K.kont. arteko emaitzaren aldeak. Emaitzaren kontziliazioa:

Kanpo kontabilitatearen emaitza : ± ustiapen emaitza
± ez ohizko emaitza
± finantzarioa

Barne kontabilitatearen emaitza : ± ustiapen emaitza

Hasiera batetan esango dugu 2 emaitzak desberdinak dira, jasotzen dituzten elementuak desberdinak direlako. Hala ere ustiapeneko emaitza bakarrik fijatuko bagina bi emaitza hauek ere desberdinak izan daitezke:

K. Analitikoan : Ustiapen emaitza = Sarrerak − kostuak
K. Finantzarioan: Ustiapen emaitza = Sarrerak − Gastuak

*Gastuen eta kostuen arteko desberdintasunak.

1. Gastu batzuk ez dira kostuak izango : Galdu Irabazi kontua

Adb: Kaudimen gabezi hornidura bat; likidezi eza: Bezero bati saldu diogu uste duguna ez digula ordainduko. Gastu bat da ez kostu bat.

Adb: Lehengaien erosketak: Niretzako lehengaien kontsumoa izango da kostua, erosketa gastu izango da.

Erosketak ± Izakinen aldaketak = KONTSUMOA (kontuan)

Erosketak + Hasierako izakinak − bukaerako izakinak = KONTSUMOA (kontuan)

GI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gastuak : Lehe. erosketa | 100 € | Lehen. eros | 50 € |
| − Lehe. I.A | 20 € | + I.A | 10 € |
| KONTSUMO : | 80 € | KONTSUMOA : | 60 € |

2. kostu batzuk ez dira gastuak:


Adb: Aukera kostua edo bereko finantza baliabideen kostua

Aukera kostua: aukeratzen duzun zerbait horregatik jasotzen duzun kostea bestea ez aukeratzeagatik.

Barne finantziazioa: Bazkideei eskatzen duzunean finantziazioa Beraz, kostu bat da baina ez da gastu bat.

3. Gastu batzuk kostuak izango dira baino balioa desberdina izango dute.

Adb: Amortizazioa: kanpo kontabilitatean balio galera fisikoa da oinarri, ohikoena bizi ziklean oinarritu. Baina kontabilitate analitikoan balio galera funtzionalaren arabera kalkulatuko da, beraz zenbatekoak ez dute zertan berdinak izan behar. Desberdintasunak emaitzaren kontziliazioa emango dituzte.




# 3.GAIA : BARNE KONTABILITATEA : LAN METODOLOGIA.

Barne kontabilitatea aurrera eramatean GI kontuak eskeintzen duen informazioan oinarritua ondorengo lan metodologia jarraituko dugu:

1- Kostuen sailkapena edo birsailkapena
2- kostuen kokapena
3- Kostuen esleipena edo inpilazioa
4- Emaitzaren kalkulua
5- Isla kontablea

## 1- KOSTUEN SAILKAPENA EDO BIRSAILKAPENA

Modu askotara egin daiteke eta GI kontua izango da gure oinarri, adb. banatu ditzazkegu K.Finko eta K.A ; zuzeneko edo zeharkako kostuetan; Atal honetan informazio garrantzitsu bat erabiliko dugu eta izango da lehengaien kontsumoa.



## 2. KOSTUEN KOKAPENA

Bigarren pauso honetan enpresaren sail ezberdinak aztertzen ditugu kostuak sail ezberdina hauen artean banatzeko asmoz. Empresa industrial baten sail ohikoena eta guk landuko ditugunak ondorengoak dira:

- Eraldaketa saila
- Hornikuntza saila
- Komertzial saila
- Sail Administratiboa

Sailak ezin ditugunean desberdindu 1.go fasetik 3. fasera egingo dugu salto. (Ikusi 1.go taula)

## 3. KOSTUEN ESLEIPENA EDO INPUTAZIOA

Fase honetan bi elementu hartzen dira kontutan: Enpresak ustiatzen dituen produktu eta zerbitzu ezberdinak; Enpresak erabili nahi duen kostu egitura.

Irakasgai honetan 7 kostu eredu desberdindu daitezke:

1- Direct - Costing
2- Direct - Costing aurreratua
3- Egitura funtzionala
4- Full - Costing
5- Inputazio arrazionala (Eredu hau beti beste batekin batera aplikatuko da)
6- kostu zuzenen eredua: 4 azpieredu
7- 2008ko KPOA-k proposatzen duena.

Ondorengo adibidea egitura funtzionala erabiliaz garatu da, kasu honetan produktu bakoitzaren ekoizpen kostua totala kalkulatzeko produkzio kostuak hartzen dira kontulan bakarrik, hau da, hornikuntza saila + eraldaketa sailetik lortutako kostu F eta KA.
Bukatutako produktuen kostua kalkulatzeko ondorengo taula erabiliko dugu. (Ikus 2. taula)

## 4. EMAITZAREN KALKULUA

Aukeratutako kostu ereduaren araberako taula bat osatuko dugu, gure kasuan egitura funtzionala aukeratu dugunez ondorengo eran kalkulatuko ditugu emaitzak eta kontribuzioa (Ikus 3. taula)

OHARRAK: (3. taulako zenbakiyen oharrak dira)

1- Kontulan hartuko dugu erabiltzen ari garen kostu egitura eta lehengaien irteera balorazio irizpidea ere.

2- Emango dugun izen kostu egituraren arabera aldatuko da.


3- Emandako datuen arabera kostu komertzialak produktuei esleituko diezkiegu edo bukaerako emaitzara eramango dugu

4- Administrazio gastuak normalean azken zutabean sartuko ditugu.

5- Barne kontabilitateak erakusten duen emaitza eta kanpo kontabilitateak erakusten duenak ez dute zergaitik bat etorri behar.

6- Marjin komertzialak ematen duen informazioa produktu bakoitzaren errentagarritasunari buruzkoa da

7- Empresaren emaitza aztertuz enpresa errentagarria den jakingo dugu



# ARIKETAK

## 2. ARIKETA

1) BUKATUTAKO PRODUKZIOAREN KOSTUA. FULL-COSTING

| KONTZEPTUAK / KOSTUAK | A | B | Guztira |
|---|---|---|---|
| + Lehengaien kontsumoa (1) | 9000 € | 3000 € | 12000 € |
| + Langileen kostua (2) | 4846,05 € | 2153,80 € | 7000 € |
| + Hornidura kostua (3) | 3750 € | 1250 € | 5000 € |
| + Amortizazio kostua (4) | 2625 € | 875 € | 1500 € |
| = EKITALDIKO KOSTUAK | 20221 € | 7279 € | 27500 € |
| + Bideango produk HI | 100 € | 500 € | 600 € |
| + Produktu erdibek HI | 1000 € | Ø € | 1000 € |
| = EKOIZPEN KOSTU TOTALA | 21321 € | 7779 € | 29100 € |
| - Bideango produk BI (5) | Ø | 500 € | 500 € |
| - Produktu erdibek BI (6) | 1000 € | 1000 € | 2000 € |
| = BUKATUTAKO PRODUKTUEN EKOIZPEN KOSTUA (I) | 20321 € | 6279 € | 26600 € |
| = BUKATUTAKO UNITATE KOPURUA (II) | 600 u.f | 200 u.f | 800 u.f |
| = BUKATUTAKO UNITATE KOSTUA (I/II) | 33,868 €/u.f | 31,39 €/u.f | 65,258 €/u.f |